

KONTROL MOZIOA

Loiolako “Urdintzu” zubiaren izena dela-eta

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko maiatzaren 16an Ogasuna Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Abenduaren 14an Gune Publikoen Batzordean hizpide izan zen Loiolako “Urdintzu” zubiaren izena, Udalbatzan urriaren 27an ezagutarazi genuen moduan, Loiolako kuarteletara pasatzeko zubian kartel berria jarria zegoelako: “Puente de Alfonso XIII” zioena, eta hiriko armarrria izan beharrean Espainiar Estatuarena zuena. Hau da, berezko izena islatzen ez zuen, hizkuntza irizpideak betetzen ez zituen eta Donostiako armarrria jasotzen ez zuen kartela.

Horrek guztiak hainbat udal araudi urratzen zituenez, eta alkatea bera horren jakitun izan arren, abenduaren 4an horri buruzko interpelazioa egin genuen. Hari erantzunez, batzordean bertan zinegotzi ordezkariak azaldu zuen bezala, Loiolako zubi horrek “Urdintzu” izena du, hala jarri baitzion Donostiako Udalak 1998an. Horrekiko koherentziaz jokatuta, zubiari dagokion kartela jarrarazi zuen Udal Gobernuak, berezko izena eta Donostiako armarrria txukun erabiliz.

Tamalez, pasa den maiatzaren 2an Espainiar Estatuko Defentsa Ministerioak berriro ere zubian edozer egiteko lizentzia balu bezala jokatu eta abenduko kartelak biderkatu ditu, oraingoan bat jarri ordez, bi jarri baititu, eta aurrekoaren ezaugarriak errepikatuz: zubiko jatorrizko izena gabe, Donostiako armarrria gabe eta Donostiako hizkuntza irizpideak bete gabe. Horren ondorioz, alkateari berari interpelazioa egin genion, maiatzaren 16ko Ogasuna Batzordean erantzun zuena.

Alkatearen azalpenak egungo testuinguru politikoan oinarritu ziren: Espainia Estatuko Gobernuak funtziotan daraman denbora luzea, eta egoera hori are gehiago luzatuko dela. Ondorioz, Loiolako kuartelak husteko eta uzteko zailtasunak ere luze doazela, eta horrek zubiari ere eragingo diola. Besterik ez.

Jabegoa auzitan sartu gabe, Urdintzu zubia Urumea ibaiaren gaineko eraikuntza da. Eraikuntzetan kartelak jartzeko lizentziak Udalak ematen ditu,

Hirigintzako araudiari jarraiki. Jasotako azalpenetatik ondoriozta daitekeen moduan zubian egun dauden kartelak lizentzia gabe jarri dira.

Horiek horrela, hauxe da aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

*Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Loiolako Urdintzu izeneko zubian dauden kartelak kenarazteko, lizentzia gabe jarri baitira, udal arauak urratuz.

Donostian, 2016ko maiatzaren 20an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
EH BILDU udal taldeko zinegotzia.